

# ANAITASUNA

246. zenb.

1972.eko Abenduaren 30ekoa

Encarnación, 19. (Artetxu) - BILBAO-6  
Teléfono 33 19 97 - Apartado 495



## 1973: ELIZA ETA EUSKAL HERRIA

Katoliko praktikatzailea naizen aldetik, benetan kezkatzen nau, azken urteotan Elizak Euskal Herrian eduki duen atzerakadak.

Fenomeno honek esplikazio bat eduki behar du, kausa batzuen ondorena baita; eta beldur naiz, gaitzaren sustrai horik\* sakonkiro eta merezi duten seriotasunez aztertu ez ote ditugun.

Gauza nabaria\* da, euskaldun gazteria, euskaraz egiten duena alegia,\* hein\* handi batetan Elizatik alden du dela; eta honen ondorenak dira seminarioen uzteak, gazte intelektualen fedegabetzea, ikastoletako tentsioak, eta abar.

Nolako jarrera\* hartu du Elizak, fedegabetze fenomeno horren aurrean?

Espainiako gerra denboran, euskaldun katolikoek hartutako jarrera ez zuen konprenitu Europako hainbat katolikok. Orduan, euskaldun katolikoak, Europako artean, aitzindari\* agertu ziren. Orain, berriz, ene ustez, atzean geratu gara.

Exenplu batzuk\* ipiniko ditut.

Espainian, eskuineko muturrean, Blas Piñar dugu, «Fuerza Nueva» aldizkaria dugu. Baina espainol katoliko gehienak ez daude hoiekin: «Ya», «ABC» eta moderatua goak diren agerkarien buruzagiekin daude.

Hor ditugu ere Zaragozan bildu ziren hamaikatxo apaiz. Espainiako Konferentzia Episkopalak eta Vatikanok berak ere ez dute haiekin bat egin nahi izan.

Etor gaitezen orain Euskal Herrira. Gure apaiz asko-

ren artean eta Obispaduetan beldurra dago, euskal gazte intelektualenganako mesfidantza. Hortik datoz ikastolen okupazioak, euskara batuarekiko mesfidantza, «Euba» izeneko ikastolen elkarte desegin erazi nahia, ikastole-tako irakasleen pedagogi aldizkaria isil erazi nahia, ANAITASUNA honi egiten zaion burruka, eta abar.

1973. urte honen hasieran, euskal apaiz eta fraileei, eta batez ere Obispaduetatik Eliza zuzentzen dutenei, serenitatea eskatuko nieke. Ez du Elizak bere prestijioa gehituko, Euban eta Deustuan hartu diren jokaerekin.

Elizak gazteriaren konfidantza lortu behar du, eta gazteek Elizarena. Baina norbaitek eman beharko du lehen pausoa; eta, ene ustez, lehen pauso hori geuk katolikook eman behar genuke.

Elizak Euskal Herriaren beharra du, eta Euskal Herriak Elizarena.

Guk, euskaldunok, une larri honetan, inoiz baino beharrezkoago dugu, fedea eman diezagukeen indar espiritualak, berarekin gaindi ahal ditzagun inguratzen gaituzten mila oztopo eta grina txar.

Biziki nahi nuke, 1973. urtea Euskal Herrian fedearen loratzearen urtea izan ledin; baina, horretarako, Elizako gidariek, apaizek eta guk guztiok elkar konprentzioa, joko garbia eta maitasuna erakutsi behar dugu.

Ez ezpata erabiliz, ez zikinkeriak zabalduz, ez mesfidantzaz jokatzuz. Hori ez da bidea. Eskua garbi luzatuz lortuko dugu beste esku bat geurearekin bat egitea.

XABIER GEREÑO

# Kooperatibak Euskal Herrian soluzioa ote?

Zenbait aldiz irakurri izan ditut ANAITASUNAn «TU» agerkariaren usteak eta aburuak.\* «TU», Arrasateko\* kooperatibisten ideologi agertzailer bezala azaltzen zaigu. Itxuraz urria eta ezereza, baina helmen\* handikoa mamiz eta asmoz, Anjel Zelaietaren ikusmoldez (bere predikuen frogagarri bezala, erdiespen\* batzuk baitaude hor).

Kooperatibistek aipatzen dituzten erdiespenak, ezagunak dira: gutti gorabehera, alde batetik enpresa hoi enjestiokera (autojestioa, hoi en iduriz\*); gero, langileria- ren bizitza mailaren hobegotzea, lan postuak ugarituz, kontsumo maila jasoz,\* irakaskintza teknikorako sarre- ra samurtuz...

Nik neuk ez dut sinesten kooperatibismoaren erdies- penetan; ez autojestiorik ez langileria- ren bizimodu- an sustraizko aldaketarik posible ez delako, kapitalismoa- ren uztarriean.

Izan ere, kooperatibak, kapitalismoak irauten duen bi- tartean, merkatuko ekonomiak eta konpetentziak bortxa- turik, beste kapitalista enpresek erabiltzen dituzten prak- tika gorrotagarriak beren langileria- ri ezartzera behartuak baitaude. Hori eginen ez balute, baztertuak eta ezaba- tuak\* izanen lirake hoi en merkatutik.

Praktika gorrotagarri hauetaz mintzatuko naiz. Kapi- talismoa umotuz\* joan den neurria, razionalizatuz eta zorrotzuz joan dira, konpetentziak bultzaturik, lana ex- plotatzeko bideak. Horrela, mekanizazioa, semi-automati- zazioa eta kateak produkzioan jeneralizatuz joan diren neurria, des-humanizatuz joan da gizonaren lana. Eta prozesu honen bukaeran, langilea ez da, zapaltzen duten bi makina madarikaturen eslaboi mixerable bat besterik. Bi makina hauetatik bata, makineria eta lan tresneria da —honek inposatzen dizkio gizonari lanaren rytmoa eta bete behar dituen mugimenduak oro.\* Eta bestea, gizar- te makina —eta ez du honek ere guttiago zapaltzen— bere hierarkia, bere ordenu, kontrol eta amandekin.\*

Gainera, langile- en nortasuna ukatzen duen lan ar- negagarri hori etengabekoa dela eta haren bizitza guztira hedatzen\* dela konturatzen bagara, ez harri,\* langile ani- tziek\* lana etsaitzat edukitzeaz edo beste batzuek lantoi- kian iragan\* denbora bizitzarako galdutzat jotzeaz.

Eta ezin uka, prozesu hau enpresa modernoetan au- rreratuenik dagoela, eta hau dela, hain zuzen, koopera- tiben kasua (Urgor-eko kateak datozkit burura).

Arestian,\* autojestioa, kapitalismoan eraikitako kooperatibetan, ez dela posible esan dut. Eta ez da po- sible, ez langileak alferrak edo indibidualistak direlako, arrazoi material ximpleago bategatik baizik, gehienetan behintzat; alegia,\* egun guztia lan aspergarri eta neka- garri batetan iraganik, lan orduak betetzen dituztenean, desnekea eta atsedena besterik ez dutelako buruan, eta prest daudelako, kondizio hauetan berek hartu beharko lituzketen erabakiak turnoko burokraten eskuetan uzteko.

Horregatik esaten du sozialismoak, gizarte sozialista baten autojestioa posible bilakatzeko,\* beharrezko dela lan orduak zeharo guttitzea; orduan bakarrik izanen bai- tu langile orok\* filosofia eta gizonaren eta gizarte- ren zientziaz janzteko aukera, horrela bakarrik hel\* bai- taiteke, bere eguneroko bizitzarekin zerikusia dadukaten problemak estudiantzeko eta erabakitzeko posibilitatera. Era horretan izango baita, izan ere, gizona bere buruaren jabe. Uste dut, beraz, egun,\* kooperatibista enpresetako lana kapitalista enpresetako bezain alienatua dagoela. Bestalde, lan aspergarri horren ordaina edo soldata, hots,\* batzuen eta besteen kontsumo maila, berdin xa-

marra da. Non gelditzen dira, beraz, kooperatibisten er- diespenak?

Gure helburua langileria- ren eta herri osoaren zorion material eta espirituala bada behintzat, nik ez dut aurre- rapen handirik ikusten.

Anjel Zelaietak aipatzen duen «TU» agerkariko arti- kuluan, hau dio artikulariak, langileek urteburuan aurrez- tutako\* sosak\* bakantzetan alegereki xahutuko\* dituzten beldurrez: «Bekatu kaltegarri batetan erortzeko\* arris- kuan gagoz: aurretutako sos guztiak birrintzekoan, ale- gia.\* Eta honela gure ekonomia ostikatu egiten da, atze- ratu, ahuldu.\*»

Eta geroxeago: «No estaremos jugando alegremente con el porvenir de nuestro pueblo, no va a ser neces- ario ese dinero, que se nos va en fruslerías, para crear nuevas oportunidades?»

Gure herri osoaren etorkizuna langileek aurreztatzen dituzten diruen funtzioan jartzea, astakeria bat iduritzen\* zait; eta ez du beste gomentariorik merezi. «Gure eko- nomia» aipatzen duenean, berriz, Euskal Herriko ekono- miaz badihardu, ez da, nik uste, euskal langileria, au- rrezta nahiz e- aurrezta, bere interesen kontra eraiki den ekonomia baten martxaren erresposable, ez baititu eko- nomia horren organizazio, hazkuntza edo estagnazioan\* zerikusia dadukaten erabakiak inolaz ere langileak har- tzen.

ANAITASUNAn urriko azken zenbakian, berriz, hau diote kooperatibistek, teknika- ren aurrerapenak ekarri di- tuen aldakuntzak goraituz eta laudatuz: «Teknika eta jakituriako mugimendu hau aurrera daroan klasea, ho- rixe da gaur egun iraultzaileena; edo, beste modu batera esanda, klase horrek bere eskuetan dauka naturaleza- ren kontrola eta gizarte organizazioaren jestioa».

Bestalde, gizartearen jestioa eta naturaleza- ren kon- trola ez dago tekniko maila osatzen dutenen eskuetan ere. Hamaika bider esanak dira gauza hau,\* egia da eta, izan ere: Gure gizarteko bizitza guztia, sozial, ekonomiko eta politikoa, (bere erabakiekin, edo bere zerbitzari den Estatuaren bitartez) moldatzen duen klasea, burgeseria da. Burgeseria honek erabakitzen du, hain zuzen, zenbat diru erabiliko den, eta zein alorretan\* eginen diren in- bestigazioak. Hor ditugu, kooperatibistek eredutzat\* dituzten Estatu Batuetako enpresetako zenbait tekniko eta zientifiko, hainbat harma eta hil-tresna madarikatu asmatzen.

Edozein modutara, ba dirudi, kooperatibisten kezka nagusia zera dela: teknika berriak sartuz, beren pro- duktibitatea jasotzea\* eta horretarako egin behar diren inbersioen finantziatzea. Eta hau zertarako? Ba,\* haiek merkatuan okupatzen duten lekua zabal dadin, mozkinen\* bolumena honekin handitzeko.

Hau da, funtsean,\* merkatuko ekonomia batetan bizi den enpresa baten azken helburua.

Bide honek nora garamatzen, gaurtik esan dezakegu: Europako gizarte kapitalisten antzeko gizarte batera. Hau da, itxura denez, kooperatibismoak Euskal Herriari es- kaintzen dion etorkizuna.

Ene ustez, berriz, gure herriaren problema askozaz ere konplejogoa da. Eta langileria- ki eta euskal intelektual- goak, problema horren aurrean, oso ikusmolde diferen- tea agertzen du; eta ez du inolaz ere pentsatzen, proble- ma hau kapitalismoak inposatzen digun koadroan eta instituzioen barnean erabaki daitezkeenik.

HUNZURRUNZAGA

## Klase burruka dela eta

Frantziako apezpikuek idazki harrigarri bat argitaratu berria dute. Idazki horretan, gai asko haintzakotzat hartzekoak dira noski. Klase burrukari dagokiona ez da txikiena, ordea.

Gertaera berri baten aurrean gaudela diote apezpikuek, zenbait kristauak —langile, baserritar, intelektualek—, beren problemak azaltzeko, klase burrukaren hizkuntza erabiltzen dutelako. «Klase burruka» hitza, beren egoera adierazteko oso egokia dela uste dute kristau hauek. Are\* gehiago, klase burruka delakoaren bitartez egindako analisia, gizarteko zuzengabekeriaren mekanika ulertzeko bide on bat izan daiteke.

Batere dudarik geldi ez dadin, honako hau ere diote apezpikuek: «Aipatutako kristauak, analisi hau egitean, Marxen esannahia ezartzen diote, besteak beste, klase burrukari».

Guzti honek ez du esan nahi, jakina, apezpikuek Marx eta Engelsen dialektika materialista delakoa onhartzen dutenik, idazkia zehatz irakurtzean ikusten denez. Baina zabaltasunak bukaerara irauten du.

Gaur egun, Marxen analisiaren utilitatea ezin dezake inork uka. Marxen aurkiberrien aurrean ikusi eta itsu egitea, sinplekeria besterik ez litzateke izanzen. Baina sinplekeria gauza bat da, eta sinplifikaziokeria beste gauza desberdin bat.

Funtsik\* gabekoa da, gaurko munduan gertatzen den guztia klase burrukaren arabera\* esplikatzen saiatzea. Horrez gainera, ba daude beste indar batzuk ere, historiaren lapiko\* handian jokatzeko dutenak. Nazioak, arrazak, ideologiak, erlijioak, ez dira guztiak ekonomiaren ondorena, marxista batzuek sinesten omen\* duten bezala.

Hau ematea ere, zientziako jarrera\* bat da. Dirudienez. Engelsek berak ere ba zekien zerbait horretaz, 1872. urteko maiatzean Bloch jaunari bidali eskutitzean ikusten denez: «Marx eta biok errudunak\* gara, batzuetan gazteek ekonomiazko kausari garrantzi gehiegia ematen diotelako. Geure orduko eztabaidetan ez genuen astirik izaten, ez eta lekurik eta garairik ere, beste faktoreei dagokien tokia emateko. Zoritxarrez, teoria berri bat ongi ulertutzat ematen da batzuetan; baina haren printzipio nagusiak ez dira ondo ulertzen».

Sobera\* dakigu, eskutitz honek tinta franko isur\* erazi duela. Baina, dena dela, hor dago; eta inork ez du ukatuko, Marxek eta Engelsek gauzak pixka bat korapilotsuagoak ikusten zituztela, gazte askok baino.

Sinplifikazioa da, beldurrik handiena ematen didan gauza. Arrazoa du Bachelard filosofoak zera dioenean, zientzi sailean sinplea ez dela esistitzen, sinplifikatua baizik. Hau ere jakin behar da; eta kontuz ibili behar da, zientzia erabili nahi izaten denean.

«Beldur zaitez liburu bakarrek gizonaz» esan ohi zuten eromatarrek. Gure artean ere, nahiz eskuin nahiz ezker, sinplifikatzaile asko omen dabil. Eta «liburu bakarrek gizon» asko.

(Neure buruari galdera bat egiten diot: «Hau ere ez ote da 'euskal primitibismoaren' seinale bat izango?»).

CARLOS SANTAMARIA ANSA



Emakume, gizonetako eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonetakoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak

**HURI ZAHARRA**

“Casco Viejo”

**BILBO**

ANAITASUNA Bizkaia  
Hamabosterokoa.

Zuzendari ordezkari: Imanol Berriatua  
Idazkolaria eta banakolaria: Josu Torre.

Bulegoak: Encarnación 19, Bilbao-6.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35,  
Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14,  
Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

## Batzar nagusien ondorioak

Ondorio hauek bi izan dira nagusi:

Bat). *Herriak zer itxarotan duen ikastolatik, eta honek zer erantzun eman behar dion gaurkoz.*

Duda haundi gabe esan liteke, herriaren edo gurasoen kezka haundiena, haurrak ondo gertatuta ikastolatik ateratzea dela; eta *ondo gertatu hau, jakintza edo kontenido aldetik esan nahi du.* Hori bai, gertaketa hau euskeraz eta euskaldun bezala jasota.

Eta gaurkoz hori bada gure herriaren kezka eta egarria, ikastolak egarri hori betetzen joan behar du. Egarrri hori ondo betetzen baldin badu, ikastolak bere egitekoa bete du. Beste gauza bat izango da, egarri berriak eta sakonagoak herrian sortu-araztea; eta hori norberak ikusi behar du komeni zaion ala ez; baina, dana dala, ikastolak ezingo dute herriak gaur egun sentitzen ez duen egarriaren bila joan.

Esan dezakezute, herri osoak ez ditula egarri hoiek bakarrik sentitzen; eta gure erantzuna da, ongarrria izango litzakela bi edo hiru motako ikastolak eskeintzeko ahalmena eta posibilitatea izatea; baina, bat bakarrik eskeini dezakegunez, bakar hau gehien baten iritzikoa izan beharko da, eta gutxienak bakar hortan sartu edo eta beste bat sortu beharko dute.

Bigarrena). *Ikastolak Batzorde honen agintepean ibili behar du.*

Garbi ikusi zen, hautarki\* bidez, Batzorde honek duela azken hitza ikastola barruan. Honek ez du esan nahi, iñolaz ere, arrazoi gabeko aginte bat izan behar duenik, ezta gutxiago ere irakasleen eskubideak zapalduak gelditzen direnik: orain, gogoan euki behar dezute, irakasleen eskubideak ez direla izango beti irakasleak pentsatzen dituzten guztiak.

Batzorde honen agintearen lehenengo ondorioa da, izendatutako zuzendaria onartzea; eta onartze hau uste dugu ez dela izango «beste erremediorik ez dago, eta hemen ibiliko da»... ez. Elkar ulertu, elkarrekin lana egin eta ahal dan probetxu gehiena ateratzeko prest egongo zeratela uste dugu, ez bait dago beste biderik aurrera egiteko.

Azkenik, Batzorde honek uste du, puntu hauekin ados baldin bazaudete, lan asko egin dezakegula Arrasateko ikastola alorrean, nahiz eta iritzi asko desberdinak eta eztabaidak izan.

Bestalde, puntu hauekin bat ez bazaudete, mesedez eskatzen dizuegu, kalte haundilagoko burrukak sortu baino lehenago, euskaldun eta lagun bezala azaltzeko eta zuen asmoak beteko dituzuen tokiren batera alde egin, zergatik eta ikastola hontan eta gaurkoz hauetxek dira bideak, eta bide hauetatik jokatu beharko da.

*Zuzendariaren egitekoa:*

Ofizialki emanak diran irakaskintzaren asmo eta elburuak eta Batzordeak asmo haueri erantsi nahi dizkie-nak, gailur-gailurreraino eraman ahal izateko, irakasle-taldearen lanak zuzendu, eratu, elkar josi ta zaindu.

*Oinarri-erantzumena ta aginpidea:*

Irakasleekin elkarturik, ikastolako haurren heziketa osatzeko (gizon, kristau bezala oinarrizteko) irakaskintza erarik onena aukeratzea.

Irakasle-taldearekin batera, ikastolako maila bakoitzari dagozkion ikasgaiak eratzea.

Batzorde barruan, ikastolako elburu nagusiak gertatzen laguntzea.

Batzordeari, ikastola egokien nola erabili eta indartu ditekenez jakin-eraztea.

Eginkizun honeri behar bezala erantzuteko, Batzordeak emango dio beharrezkoa zaion aginpidea; eta Batzordeari bere eginkizunaren berri eman behar dio.

*Bere lan eta eginkizun bereziak:*

Irakasle taldearekin batera, ikastolako egoera ta ikasleen arazo eta goraberak ezagutu eta zuzentzeko, haurren guraso eta irakasleekin, aldiz-aldiz batzarrak eratzea.

Irakasle eta ikasleen artean disziplina giroa sortu, eta ikasgaietan ardura ditezenez saiatzea.

Irakasleren batek bere eginkizuna edo ikastolako arau nagusiak beteko ez balitu, irakasle izena bera ere galtzeraino, Batzordea jakinaren gainean ipiniko du, honek behar diren erabakiak har ditzan.

Batak bestearekin oi dituzten har-eman guztietan EUSKERA erabili dezaten arduratuko da, eta euskera garbi eta egokia erabili dezaten alegindu.

Beste ikastetxe eta Gipuzkoako ikastolen Elkarte Bateragilearekin bere har-emanak izango ditu.

«Heziketa eta Jakintza Ministerio»arekin eta irakaskintzako beste erakunde\* ofizialekin har-emanak izatea bere gain izango du.

Hilero ikastolako egoera eta sor ditezken arazo guztiak, ikastolako Batzordeari jakin eraztea.

### ARRASATEKO IKASTOLAREN JUNTAK

#### Ipar Euskal Herriaren historiari buruzko ikastaroa

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiak, Philosophia eta Letretako Fakultatearen laguntzaz, Historiazko ikastaro bat antolatu du, **Historia de la Baja Navarra o Sexta Merindad** izenburuz.

Ikastaro hau Eugène Goyhenetche irakasleak ematen du.

Egunak: Urtarrilaren\* 8tik 12ra.

Ordua: Arratseko 7,30etan.

Lekua: Unibertsitateko hitzaldi aretoa.\*

**ELAIS ALAI**  
**YURRE**

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra  
Astegunez: 7. tatik 11 ra.

KAFFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

## Euskal herriko piztiak: Hartzak (2)

Neguan gagoz, eta abenduko azken igande honetan, urte zaharrari ondo ibili eta berriari ongi etorri esateko, amak bazkaria prestatzen dauan artean, osaba Martin eta Eneko goizean goizik Gernikarako autobusa hartu eta Kortezubira joan dira, bertan hain fama handia dauken Santimamineko haitzuloak ikustera. Haize hotz hotza dabil; eta mendi goietan, bai Oiz eta bai Gorbeia tontorrean, elurraren zuritasuna ikusi daiteke, neguaren seinale.

Santimamineko haitzuloaren sakontasunean, kanpoko hotzaren kontrara, epeltasun atsegin bat dago; eta Enekok poz pozik entzuten ditu, ondoko baserriko gidari eus-



kaldunak ematen deutsozan esplikazio guztiak. Hareek bai irudi ikusgarriak: bisonteak, basahuntzak, oreinak,\* hartzak,\* zaldiak... Eta tokia bera: kobako harrizko habe\* zuriskak, gortina gisako harri meheak; sukaldetik zintzilik egoten diren moduko zitor\* eta lukainka ugari hemen ere, baina harrizkoak. Eta haitzulo sakon hori amaitzen dan lekuan, gainera, arraultza frijitu moduko bat, urak harrian eginda! Ba dauka, bai, Enekok zati\* baterako kontagarririk franko.

Kanpora irten eta autobusa gelditzen dan lekura bihurtzen diren artean, gure mutikoa osabari etengabeko itaunketan\* hasten jako:

—Osaba, aintzinako Euskal Herrian ba ziren orain baino piztia gehiago, ez da? Orain ez dago ez bisonterik, ez hartzik, ez horrelakorik, ez da?

—Bisonterik ez. Europako parte honetan aspaldian galdu ziren zeharo, baina oraino Polonian eta Sobietar Batasunean batzuk\* gelditzen dira bizirik. Azken bisonteok, gainera, ardura haundiz zaintzen ditue bertako gobernuek. Ene ustez, Euskal Herrira ere ekarri beharko lirateke horrelako bisonte batzuk, Altubeko eta Iratiko oihanetan\* ondo bizi eta ugalduko liratekealako, honela gure aintzinako fauna birpiztuz. Ba dakizu, oreinak eta orkatzak\* ere ekarri egin direla eta ondo hazten direla gure basoetan.

—Eta hartzik ba ote dago batere gaur Euskal Herrian?

—Bai, baina gutxi. Gelditzen diren azkenak Nafarroako eta Zuberoako oihanetan bizi dira, Irati aldean. Mendi Pirinioetan, orain dala urte batzuk, berrogeitabi hartz inguru bizi ei\* ziren bakar bakarrik. Kontu pixka bat euki beharko litzateke, piztia eder hau galdu ez dakigun. Aintzinaan, bisonteekin batera, hartzak ere Bizkaian eta Gipuzkoan bizi zan.

—Eta handiak izaten dira Euskal Herriko hartzak?

—Handienak muturretik buztanera bi metrotakoak izaten dira, eta garaieraz metro bat baino gehitxoagokoak.

—Zer jaten dabe hartzek?

—Basoetako aleak, gaztainak, ezkurak\*, perretxikoak, belarrak, sustraiak eta baserleen eztiak, berau topatzen dabenean; bai eta animaliak ere: intsektuak, kakarral-

doak,\* matxinsaltoak,\* igelak,\* arrainak, txoriak, ardiak, zaldiak eta honelakorik.

—OrJuan kaltegarriak izaten dira, ez da?

—Hara! Basoko piztiek ez dakie, kalte egiten dabenean; eta, inoren ardiak eta abelgorriak\* aurkitzen ditue-nean, gose badira eta jateko era\* badabe, eraso\* egiten deutsee. Baina gehienetan hartzak basoko gauzetatik bizi dira, inoren ondasunei ikuturik egin gaberik.

—Ez dira hain gaiztoak, orduan? Gu mendian hartz batek ikusiko baginuz, ez leuskigu ezer egingo, osaba?


Beharbada, gugandik iheska joango litzateke; baina, gose balitz edo eta kumeak inguruan eukiz gero, ba leteke gure kontra etortzea, jateko edo kumei ezer egin ez gengioen. Ameriketara, Estatu Batuetara, ba dago parke famatu bat, Yellowstone izenekoa. Bertan hartz asko bizi dira libre eta euren kontura. Hartz horreek, baina, bisita egitera joaten jaken jendeari, janari eske hurreratzen jakoz automobiletara, kamino ondoan zain egonik, eta pertsonen eskutik mantso mantso jan ere bai. Ikusten dozun ez dira hain gaiztoak, baldin gizonaren ondoan bizitzen badakie.

—Aintzinaan ez ei ziren ibiltzen ijitoak hartzekin, panderoa joaz? Amamak hori kontatu deust, behintzat.

—Bai, ibili egiten ziren; baina halakoei ez jaken euskaraz ijitoak esaten, ungrianoak baino, Ungaria aldeko tzingaroak ei zirelako.

—Non ematen dau hartzak negua, osaba? Azkonarren moduan egiten dau lo?

—Bai, bere habian, koba zuloren batetan, azkonarren\* antzera, udan jandakoetatik bizitzen dala. Udaberrian berriro itzartzen\* da lozorrotik, eta emeak bizpahiru kumetxo ekartzen ditu mundura, txiki txikitxoak, arratoi bat lakoxeak.



HARTZA

—Nire ikastolan dagoen mutil batek hartzari «otso» esaten deutso, osaba. Bera uste dau, erdaizko «oso»tik datorrela. Hori txarto dago, ez da, osaba?

—Bai, gaur egun euskaldun askok, euskal eskolarik ezaz, elkarrekin nahasten ditue hartzak eta otsoak. Lehenengo zakur baten itxurakoa da, eta hortik dator Ochoa edo Otsoa deitura.\* Bigarrena, hartzak, latinez *ursus* esaten zan, eta hortik datoz espainolezko *oso* eta frantsesezko *ours* (= *urs*). Zientzizigizonen hizkeraz *Ursus arctos* esaten jako. Bigarren izena grekoa da, eta hortik dator *arkitiko* hitza, poloaren aldeko itsasoa deitzeko, iparraldea erakusten dauan izarra hartzaren izena daraman konstelazio batean dagoelako.

TRAUKO

# gure munduko albisteak

## Gabon jaiak Bilbon

Urtero bezala aurten ere, Gabonak datozela eta, hainbat euskal esaldi aurki daiteke Bilboko kaleetan, Zorionak eta Urte Berri On eskainiz.

El Corte Inglés-en, Gran Vía-n, orain dela urte pare bat edo, izugarritzko letra haundi argitsuz Zorionak bi jarri ziren, Felicidades bati inguratuz. Dirudienez, hura\* ez zitzaion baten bati askorik gustatu; eta Felicidades bi jar erazi ziren, Zorionak bakar eta triste bat utziz. Aurten ere, «inor» haserre ez dadin edo, El Corte Inglés-en zazpi Felicidades agertu dira eta lau Zorionak.

Bilbo Zaharreko merkatari eta dendariak, aldiz,\* zazpi kaleak argiz apaintzeaz gainera, Gabon pinu eder bat ezarri deraukute Arenalean, Bilbo Zaharrerako sarreran, goian letra handiz Zorionak galant eta bakarti bat ipinirik.

Dakusagunez,\* gehiago saltzearren, mundu guztia gogoratzen da gure eukara gaixoaz, urtean zehar berriz kasurik egin ez arren. Noiz ikusiko dugu, euskara «beti» erabiltzen? Agian\* orduan konturatuko ginateteke, beti erabiliz, euskarak berak ere gehiago balioko lukeela.

## Zezen toreadoreen pribilegioak

Dugun Estatu katoliko, apostolular eta erromatar honetan aspalditxuon ikusten hasi garenez, sexu morala bikoitza egiten hasi zaiku. Alde batetik, gizagaixo po-break daude, ezkondu aurretik sexual harremanetan hasiz gero, gizonezkoak —baina neskak batez ere— lizunkeriazko markaz behin betiko seinalaturik agertzen direnak. Eta, ezkondu ondoren, andreagandik apartatu eta beste batekin bizitzen hasiz gero, «arrimatu» eskandalugarritzat salatuak ditugu besteak. Hori duk hori moral publikoaren aldeko izatea, bai horixe!

Baina kontuz! Erregela berak ez du balio goi mailako aberatsen kasuan, ez horixe! Hau, gauza jakina denez, betidanik izan da hola; baina orain itxurak berak ere ez dira gordetzen. Bere andreagandik apartaturik bizi den zezen toreatzaile bat beste neska batekin paseatzen ikusia izan dela eta, «bere bakartatea kontsolatzen dion adiskide batekin» zebilala aipatzen da, gaixoa bakarrik triste zegoen eta.

Honez gainera, ofizialki bere andrea duen ala ez oraino argitu ez den andre bategandik bi haur ukan dituen beste toreatzaile bat ere halako aldizkari baten lehen orrialdean agertu berri da, haur horiez inguraturik, bera haien aita dela esanez.

Noski, nik neuk, gizonak bizitza bere gogora\* gobernatzeko ukatu ezinezko eskubidea duela uste dut. Eta, horrexegatik, inoren bizitza pribatua eta morala kritikatzeko beti bidegabekeria iruditu zait; baina are\* bidegabekeria handiagoa, jakina, behekoengan barkagarri ez diren «bekatu zikinak» goikoengan edergailu egitea.

## Luis Mitxelenaren TRIUNFOa

Ez dugu uste, halafede, Mitxelena triumfalista horietakoa denik, ez horixe. Hitz joko hutsa dateke hau, beraz. Dena dela, Mitxelena eukaltzain oso eta kathedradunaren artikulu interesgarri bat eskaini derauku TRUNFO aste-kariak, aurtengo abenduaren 9ko alean, *Los españoles* izeneko gehigarrian.

Galiziaz X. L. Méndez Ferrín-ek eta Kataluniaz J. Solé Tura-k bezalaxe, gure Erreteriarrek «De los vascos y su carácter» izeneko artikulu bat egin derauku Euskal Herriaz. Ba dakar, noski, are\* artikulu gehiago liburuxka honek, horien artean Julio Caro Baroja jaunarena. Baina gakizkion Mitxelenarenari lot.\*

L. Arangurenak ulertzen ez badu ere, Mitxelenak ongi

isuri\* du bere umore jatorra artikuluan. Barreragile, ironia fin eta zorrotzeko eta benetan ausarta\* iruditu zaiku haren lana: agian, zenbait itzulinguru korapilotsu gorabehera,\* TRIUNFOren gehigarri honetako artikulurik ausartena. Gure Herriaren apologia egiterakoan, nik uste, zenbait hauzok bere burua ispilu konkaboan ikusiko du, eta agian, lehen inorengat\* egite\* zuenez, ez duke bere buruz antzeko barrerik egingen. Kausak eta ondorioak, Unibertsitaterik eza eta gaurko euskal problema askoren iturrien azterketa, gaingiroki\* bederen\*, ongi egiten daki; eta azkenean, onerako edo txarrerako, euskaldunok geure bidetik ibiltzen utz gaitzatela nahi dugulako esaldi hori, nik neuk ere neure egiten dut.



Gomendiozko\* artikuluan José Luis L. Aranguren jaunak Mitxelenagatik dioena, harrigarri ez baina iraingarri iruditu zaiku, zinez\* esanda. «Perfectamente asimilado ya por la derecha española» hori zer ote da? Aitortezinezko bekaizkeria\* bat ote? Kathedrálortu ondoren galdu zuenak, bere buruari hura galtzeko luxoa ezin permiti ziezakeonagatik\* ez dut uste esatekorik duenik, bere Herriak ere horixe ez baitzion, arrazoiz gainera, inoiz barkatuko. Bestalde, L. Aranguren jaunak, gaztelauk euskaldunoi —katalanei ez bezala— omen\* deraukutela dioen amodio berezi hori, ironia ez bada behintzat, nik neuk, neure itsutasunean, ez dut sobera\* ikusi, eta hobe ikusi banu.

Guztitarra, lehengo eta gaurko Euskal Herriko egoera argitzen, batzuei —nahi badute behintzat— lagunduko dien artikulu bikain bat, TRIUNFO aldizkariari zinez\* esker ematekoa.

## Izen-mizenak

LUR editorialak bere harpidedunoi jakin erazi deraukunez, programaturik zegoen Friedrich Engelsen liburua ez da zabalduko, erabaki hau editorialaren gustuz hartua izan ez bada ere.

Guk dakigularik, liburu horietako obrak jadanik\* 1968.-ean Donostiako Equipo Editorial-ek (G. B.) atera zituen, are\* Madrileko Editorial Aguilera-k baino lehen; eta, oso oker ez bagaude, katalanez ere ba daude salgai. Harrigarria zaiku, beraz, erdaraz edozein liburu dendatan eros daitezkeen obra batzuk, euskaraz ere ezin zabaltzea.

Dena dela, baten batek hortik esan duenez, liburu hori ez da LUR editorialak argitaratu nahi zuen bat, egiaz —publiko artera zabaldua izan ez arren— argitaratu egin duen bat baizik. Guk guttienez, Durangoko liburu ezokan argitaraturik ikusteko era\* ukan\* genuen, beste askok bezala, salgai ez bazegoen ere.

Honez gainera, erdaraz obra horiek duten titulua gorabehera,\* liburuaren izena ez zen hortik batek esan duen «Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora» delako izena, itzultzaileak jatorritzko aleman izena (Die Entwicklung des Sozialismus von der Utopie zur Wissenschaft)

kontuan harturik, euskaraz *Sozialismoaren aurrerabidea*

*utopiatik zientziara* ezarri baitziren, Amatiñok ZERUKO ARGIAN birritan ongi idatzi zuenez. Esan dezagun, bukatzeko, LURen liburu horretan ez zegoela Engelsen saio hori bakarrik, baizik eta *Ludwig Feuerbach eta aleman filosofia klasikoaren amaiera* ere agertzen zela.

### Ez aldebatekotasunari

Deustuko Unibertsitatean ihaz ezkertiar kutsuko asanblada eta erretorearen baimenik gabeko bilera batzuk egin ziren, estudiante batzuen aldetik. Horren ondorioz, erretoregoak «buruzagi»tzat eta «eragile»tzat harturiko ezkerriak batzuk espedientatuak eta Unibertsitateetik egotziak izan ziren: guztitara 26 gazte.

Ez dirudi, ordea, neurri horiekin Deustuko Unibertsitate baka etorri denik, ateetan maiz\* askotan poliziak egoten baitira aurten ere.

Ba dakigu, bestalde, Lucas Verdú irakasleari, zenbait estudiante eskuindarrengandik —Kristoren Guerrilleroengandik antza—, anonymo biziki pitxiak heldu zaizkiola, batzuk hiltzeko mehatxuarekin, gainera. Estudianteen artean kezka hau dabila: Zer dela eta, erretoreak ez du horien kontra ere halako neurririk hartzen?

Ihazko asanbladazaleek, ez dirudi inongo irakasleri hilgo zutelako mehatxurik egin ziotenik; eta, hala ere, kanpora bidaliak izan dira. Oraingook, gure ustez, orduko asanblada erdifikloriko haik\* baino arazo kezkarriagoetan ari dira, lagun hurkoaren kontrako mehatxuak eta gogorkeri egintzak bide demokratiko guztien kaltetan ari baitira; eta, horregatik ere, halakoek Unibertsitatean dira.

Nortzuk diren ez dakiela aipatzeak, ez du hemen deus\* balio. Ihazkoak nortzuk ziren jakiteko informazio edo espionai zerbitzu bat bazuen, ba dirudi arrazoizkoa dela, informalarik berberoriek abisua emateko eskatzea. Zergatik, beraz, alde batekoak bai eta besteak ez?

### G. Aresti eta Manuel Maria poeten hitzaldia Deustuan

Abenduaren 13an (asteazkena kasualitatez) Euskal Kultur Mintegiak hitzaldi bat eratu zuen eguerdirako. Gaia: «Kultura, bi poetak, G. Arestik (euskaldunak) eta Manuel Mariak (galegoak) ikusirik».

Eguerdian hasi zen mintzaldi informal hau; eta, estudianteen aldetik, Deustuko Unibertsitateko hitzaldi aretoa\* mukururaino\* beterik egon zen, gaia eta hizlariak interesgarri zirela ederki frogatzen\* duena.

Poeta bakoitzak, bere Herriko poesia nola dagoen azaldu zuen, eritzi interesgarri eta pertsonal batzuk emanaz.

Gure aburuz,\* Manuel Maria jaunak ez zuen informazio onegirik euskal liburuaren edizioez; bestela, segur aski,\* ez zukeen esanen prezioez eta autore eskubideez esan zuena. Zeren,\* guk dakigularik behintzat, ez dira euskal liburuak, mamiari eta formari bagagozkio, garestiagoak galegozkoak baino; eta halaber\* ez dugu ezagutzen batere idazlerik, euskal liburuarekin aberastu denik.

Gutziz zuhurra iruditu zitzaikun, Arestik galegoez eman zuen eritzia, hots,\* ahaleginak egin behar ditugula, Euskal Herrira datozen galegoek beren jatorrizko hizkuntza gal ez dezaten, hura\* galduz eta erdaldunduz, deseuskalduntzaile bihurtu ez dakizkigun. Agian, euskalduntzea posible ez den lekuan, horixe izan litzateke onena.

Azkenean, egunaren malefizioak horretaturik edo, elkar hizketa trumoitso bat sortu zen, Euskal Herriko, Galiziako, Kataluniako eta Gaztelako kultur egoerari buruz; eta, honetan, entzule batzuk ez ziren oso konforme gelditu Arestiren eritziekin.

# AXULAR

## «Mendea, gizona, liburua», aita L. Villasantek, JAKINen

Abenduaren 16an heldu zaiku, aita Luis Villasante euskaltzainburuak JAKIN sortan argitara emandako liburua: «AXULAR: mendea, gizona, liburua».

Aita Villasantek, duen euskara jator, zehatz eta ederrean, Urdazubiko\* semearen bizitza, ingurua, literatur iturriak eta liburuaren azterketa ongi oinharritu bat egiten derauku liburuaren 250 orrialdeetan zehar. Izan ere, nor egokiagorik saio honetarako, hainbat urtetan Axularri buruzko lanetan ihardun duen aita Villasante bera baino? Irakurleari, gainera, bibliographia interesgarria eskaintzen dio obra honetan, geroagoko lan eta azterketen iturri.

Ba dakusagu, euskara ez dela aspaldion estudiogai huts bat, kultura aztertzeko eta estudio sakonak burutzeko\* pentsatresna trinko bat baizik. Zorionak Villasanteari eta JAKIN sortari, hain liburu bikainagatik.

Eskatzeko: JAKIN, Editorial Franciscana Aránzazu, Oinati.

## Adrian Zelaia jaunaren Foru Hitzaldiak

Beranduegi heldu zitzaikula eta, ezin agertu genuen aurreko ANAITASUNAn, Adrian Zelaia jaunak Deustuan, abenduaren 11tik 15era, arratsaldeko 7,30etan, emateko zituen hitzaldien albistea.\* Baina esan dezagun, haik\* bukatu ondoren, interesgarri iruditu arren, agian ez zirela oso egoki programatuak izan. Gure eritziz, Bizkaiko gaurko foru hondakin eskasez gabe,\* askoz hobe izan zitekeen, orain dela bi mendetako\* foru osoez aritzea.\*

Hizlariak ongi aztertu zituen lege puntuak. Baina gaia beraren espezializazio handiegia ez zuen entzule askorik bildu gazteen artean, erdaraz izan arren; eta, joan zirenen artean, gehientsuak abokatuak eta legetan adituak besterik ez zegoen.

Zelaia jaunari gai hori eskatu bazioten, agirian dago errua ez zela berarena, eskaria egin zioten Euskal Kultur Mintegikoena baizik. Ea, hurrengorako, akats hori erremediatzen duten!

## ERDAL MYTHOLOGIA

Deustuko Unibertsitatean, Philosophiako Fakultatean hain zuzen ere, halako ikasle batzuk, oso arrazoi kuriosoak aipatuz, 3. ikastaroan «Eskualdeko Linguistika»tzat ematen den euskarazko eskolak kentzeko ahaleginak dira. Berauen lekuan Civilización Hispánica edo jartzea nahiz zuten.

Bartzelonako Unibertsitatean katalana eta Santiagokoan galegoa ematen diren bitartean, Deustukoan euskara dagoela eta, protestaka. Dakigunetik, ikasle horiek ez ziren hemengoak, gaztelau zaharrak baizik; eta euskara, latinetik hizkuntza ez dela eta, ez zela irakatsi behar zioten. Ez zuen horrela uste M. Pidal jaunak, euskarari erdararen jatorria estudiantzeko hain baliotsu zeritzon\* eta. Hemen ere aitortezinezko interesak daude,\* kultur balio neurri ezberdinak.

Gogoz eskainiko nioke gai hau gure sozial mythologo ofiziala dugun Haranburu-Altunari, esaera zaharrak dioenez: «zoaz beste herrira, han ere zakurrak ortutsik».\*

ARMENDARITZ

# Arrasateko gertakarien historia laburra

## 1971.eko udaberrirarte.

Ez da eztabaida haundirik sortzen gurasoen edo Juntaren eta irakasleen artean, ez metodoaren aldetik, ez nork agintzearen aldetik.

## 1971.eko udaberria.

Gurasoek ikastolan ematen zèn heziketa ez zutela gehiegi ezagutzen eta, Juntak galdekizun bat egitea erabaki zuen, ikastolako eta familiako heziketaren artean etendurarik ez zedin sor. Erdiek inguru erantzun zuten.

Erantzunek adierazten zituztèn eginbeharrak (hitzaldiak, batzarrak eta abar) aurrera eramaten hasteko, 30 bat gurasori deitu zitzairen, 15 inguru bildu ziren.

Bi bilera klase sortu ziren handik: erlijioari buruzkoa bata, herriko apaiz baten laguntzapean eta bizpahiru irakaslerekin; bestea, ikastola eta etxeko heziketak bateatzeko.

## 1971.eko uda.

Lehenengoetara joaten zèn apaizak, laster utzi zituen bilera haik; \* eta, laguntzaile premia betetzeko, beste hiru pertsona hautatu ziren, bakoitza ondorengo gaiak arduratzen zela: Imanol Laspiur kulturaz, Josu Atxa Heziketa Lege Berriaz, eta Eusebio Osa fedearen ikuspegitik ikastolako giroaz.

## 1971.eko udazkena.

Guraso guztien Batzar Nagusiari batetik eta apaizari bestetik, asmo onen berri eman zitzairen, Juntak parte hartzera gonbidatuz.

## 1971.eko urria.

Urteroko Batzar Nagusian, Juntaren erdia berritu zen boto bidez. Osak lehenengo hitzaldia eman zuen. Entzuleak gustora irten ziren. Hitzaldian egon ez zèn Juntako jaun batek, Osari buruzko informe txarrak ekarri zituen Gasteiztik, hitzaldiaren antolaketan arduradun zenari, hango juntako batekin hitz egin zezala proposatuz.

Arduradunak onhartu zuen proposamendu hori; baina jaun gasteiztar hori ez zen agertu. Arrasateko Juntako gainerakoek ez zuten arriskurik ikusten Osarekiko harremanetan.

Osak galdekizun bat eman zuen; eta, horretan oinharriturik, batzar haiek jarraitu egin zuten, berriro ere deituko zitzaiolakotan.

## 1971.eko Eguberri ingurua.

Aretxabaletan, bailarako\* juntek —irakasle batzuk tartean zirela— bailara osorako koordinatzaile baten premia ikusi zuten.

## 1972.eko otsail\* ingurua.

Osak beste hiruzpalau hitzaldi eman zituen, lehen goei jarraituz. Entzuleak, nahiz guraso nahiz irakasle, gustora zeuden. Arrasateko\* Juntaren batzarrean, lehendakariak, koordinatzaile bezala bailarari\* eskaintzeko, pertsona egoki baten berri eman ziotela azaldu zuen; baina, irakasleek beste izenen bat aukeratu nahi bazuten ere, epe bat uztea erabaki zen. Hamabost egun ondoren, bailarako irakasleek proposatzen zutèn izena azaldu zioten Arrasateko irakasleek bertako Juntari: Eusebio Osa. Ez zen eztabaidarik izan batzar honetan; baina hurrengoan pertsona horretaz susmo txar asko zegoela esan zuten Juntako zenbaitek.

Halabaina, bai Juntak nahi zuen kandidatuari —Joseba Ariznabarretari— eta bai Eusebio Osari, programa bat presenta zezatela eskatu zitzairen. Lehendabizi Ariznabarretarena heldu zen, eta hamabost egun beranduago (apirilaren 5ean) Osarena.

## 1972.eko apirila.

Osaren programa iritxi\* zenerako, ordea, Arrasateko Juntaren zati batek erabakia hartua zedukan, Juntako beste batzuk ez bazeuden ere: Ariznabarreta izanen zen pertsona hautatua, baina ez ordurarte eztabaidaren gako izan zèn kargurako —bailarako koordinatzaile izateko—, Arrasateko ikastolaren zuzendari izateko baizik, bailararen problema alde batera utziz.

Hautapen\* horretan Osa baztertzeko pisuzko arrazoi bezala, Arrasateko udaletxearen\* ordezkariak zera agertu zuen, bere eritziz, udaletxeak berak, kooperatibek eta «Caja Laboral»ek diru laguntza eta babeska ukatuko zituztela, Osa onhartzen bazen.

Irakasleak ez zeuden jokabide honekin ados,\* eta haien ordezkariak Juntara gehiago ez joateko erabakia azaldu zieten Juntakoei eskutitzez.

Kandidatu bi horik,\* bailara guztiko herriei proposatuak zeuden, bailarako kordinatzaile kargurako; eta, Arrasateko Juntaren erabakia jakin zutenean, bailarako herri batzuetako ordezkariak hasarretu egin ziren, erabaki hori bailaratasunaren aurkakotzat hartzen zutelako, eta Arrasateko zuzendaritza ere inposatua izan zelako.

Bailarako irakasleek bailarako batzarrerara beste karta bat bidali zuten, Arrasateko irakasleekin bat eginez eta bailarako batzar horietara ez zirela joanen esanez.

Osak bi hitzaldi eman zituen, halaz eta guztiz, Arrasateko ikastolak antolatua: bata guraso talde bati (bi Juntako ere ba ziren) eta bestea publikoki.

Juntak, istilu hartan bere autoritatea hauzitan zegoela kontsideratuz, Batzar Nagusiari autoritatearen konfirmazio boto bat eskatzea erabakitzen du.

## 1972.eko maiatzaren 3an.

Batzar Nagusia oso giro mindu batetan egiten da (irakasleei bezperan eman zitzairen batzar honen berri). Azkenean, Juntak botazio bat planteatu zuen: bai ala ez, Juntak ongien zitzaiona egin zezan. Baiezkoa irten zen garaile. Handik egun batzuetara, Juntak «Batzar Nagusien ondorioak» izeneko txostena irakurri zien irakasleei, han azaltzen diren oinharritzko puntuen aurrean jokabide hauetako bat eskatuz: Juntaren agintea, zuzendaria eta Oinharritzko Heziketa Legea onhar edo ikastola utz.

Irakasleek lehenengo jokabidea aukeratu zuten, esijentzia gogorregiak ez zirelako ustetan.

## 1972.eko irailaren\* 18an.

Ikastaro berria hasteko eguna zen. Ikastolak San Jose ikastetxean dituen zazpi gelak obratan zeuden, amaitu gabe; eta beste hiru geletan mahai, tresna eta traste asko zegoen. 220 bat haurrek sartu behar izan zuten azkeneko hauetan, beren zazpi irakasleekin. Ez zuten eserterik,\* ez komunik; eta kanpora irtetea arrisku handia zen, langileek leihoetatik eskonbroak botatzen baitzuzten.

Zuzendariaren eritziz, arratsaldean haurrak etxean gelditzea zen onena. Irakasleek ere, goizaren erdia han iragan\* ondoren, ez zuten lanerako kondizio egokirik ikusten. Zuzendariaren bila ibili ziren, Juntako sekretariaren bidez; baina ez zen hura\* inondik ere azaltzen. Azkenean txiripa hutsez topatu zuten, eta Juntako obren arduradunekin —hauk\* ere sekretariaren bidez deituak— batzar bat egin zuten.

Zuzendariak eta irakasleek gelen kondizio txarrak azaldu zituzten.



Juntakoek klaseetan jarraitu behar zela esan zuten, langileek, premia ikusten bazuten, bizkorrago lan eginen zutela eta.

#### **1972.eko irailaren 19an.**

Irakasleak ikastolara joan zirenean, zuzendariak haur txikiak etxera bidaltzen ari zen. Zaharrenekin irakasleek ikastolan jarraitu zuten.

Goiz hartan Juntako lehendakaria joan zen ikastolara, eta, egoera hura ikusirik, astelehena (25) bitartean haurrak etxera bidaltzeko baimena eman zuen, andereño baten konfirmazio eskeari ere erantzun berdina emanaz. Haurrak etxean gelditu ziren arratsalde hartatik.

#### **1972.eko irailaren 20an.**

Zuzendariak Juntari eta irakasleei batzar batera deitu zien. Hasarre agertu zen zuzendaria, «irakasleek, bera haintzakotzat hartu gabe, haurrak etxera bidaltzeko erabakia hartu zutelako, eta irailaren 18ko batzarra berarekin aurrez hitz egin gabe antolatu zutelako». Irakasleek, asmo txarrik gabe egindako gauzak zirela agertu zuten, eta, zuzendari batekiko harremanetan, alderdi horretatik ohitura bat ez zegoelako gertatu zirela. Astelehena bitartean haurrak etxean gelditzeko erabakia ez zen gaitzesia\* izan.

#### **1972.eko irailaren 25ean.**

Zuzendariak eta lehendakariak, ikastolako gelak oraindik behar bezala egokitu gabe zeudelako, haurrak osteguna\* (28) bitartean etxera bidali zituzten.

#### **1972.eko irailaren 27an.**

Juntaren batzarra izan zen. Irakasleen ordezkariak zuzendariaren eginkizuna zein zen eta zenbat ordainduko zitzaion galdetu zuen. Azkeneko hori berari zergatik esan ez zegoela erantzun zion lehendakariak.

#### **1972.eko irailaren 28an.**

Klaseak berriro hasi ziren, obratan zeuden gelak egokitu ondoren.

#### **1972.eko irailaren 29an.**

Zuzendariak irakasleekin batzar bat egin zuen. Irakasle bakoitzak hamabostean behin asignatura bakoitzetik zer eman duen adierazi beharko lukeen fitxa bana eskatuko ziela esan zien.

#### **1972.eko urriaren 11n.**

Juntaren batzarra izan zen. Ohitura bezala, 4 (lau) ordezkari joan ziren irakasleen aldetik: bi botodun eta bi entzule. Juntak, handik aurrera bakarririk joan behar zutela agindu zien. Bestetik, irakasleak zuzendariari boikot egiten ari zitzaizkiola esan zuen Juntak; eta, ondorenean, irakasleen batzar guztietara eta bailarako beste irakasleekin egiten zituztenetara zuzendaria deitua izan behar zela.

#### **1972.eko urriaren 19an.**

Berriro Juntaren batzarra. Oraingoan, guraso guztien Batzar Nagusia antolatzeko. Irakasle eta Juntaren arteko harremanak azalduko zituen puntua aztertzeke garaietan, eztabaidak zeudela ikusirik, Junta eta irakasleak batzar batetan biltzea erabaki zen.

#### **1972.eko urriaren 20an.**

Zuzendariak irakasleekin izan zuen bileran, hauek Juntak aipatu zuen boikot hori zertan zetzan\* argi zezala eskatu zioten. Juntaren aurrean eta beronen babesean bakarrik azalduko zituela bere arrazoiak erantzun zuen.

#### **1972.eko urriaren 23an.**

Juntaren batzarra, zuzendariarekin eta irakasle guztiekin. Juntak, berriro, «Batzar Nagusien ondorioak» txosteneko puntuei berehalako erantzuna eman ziezutela eskatu zien irakasleei, txostenean azaltzen diren kondi-

zioetan. Zuzendariak, ondoren, boikota zertan zetzan azaldu zuen. Arrazoi inportanteak bezala, hauk\* aipatu zituen: irailaren 18ko batzarra, zuzendaria haintzakotzat hartu gabe antolatzea; haurrak lehendakariaren hitz bakarrekin etxera bidaltzea; eta zuzendariak egindako programaren kopiak, banatu gabe ikustea.

Irakasleek, txosteneko puntuak ikastaroaren hasieraz geroztik errealitate konkretu bihurtu zirela eta zazpi irakasle berriek taldearekin inoiz aztertu ez zituztela ikusirik, aste beteko epea eskatu zuten. Juntak aste beteko epea ez zuen onhartu, eta, handik irten baino lehenago, erantzun bat eskatzen zuen. Ordu erdi bat iragan ondoren, irakasleek Juntari deitu zioten; eta Junta irakasleei banakako erantzuna eskatzen hasi zitzairen. Lehenengoaren erantzuna aste beteko epea berriro eskatzea izan zen, taldeak aurretiaz erabaki zuen bezala. Ukatu egin zioten; eta orduan taldeko beste batek, kondizio haietan taldea ezetz erantzun beharrean zegoela esan zuen.

#### **1972.eko urriaren 24ean.**

Ikastola hitxita zegoela ikusi zutenean, Juntak batzar bat zuela jakinik, eta Juntako batek proposatuz, hirurogei bat guraso irakasleekin joan ziren, bi alderdietako arrazoiak entzutea. Juntak, guraso taldearekin eztabaida bat eduki ondoren, onhartu egin zituen gurasoak batzarrean, baina ez irakasleak. Gero, urriaren 26ko batzarrean justifikatu zuen hau Juntak, ikastolatik botata zeuden irakasle batzuek batzar hartara zergatik etor ez zedukatela argumentatuz.

#### **1972.eko urriaren 26an.**

Guraso eta sozio guztien Batzar Nagusia. Lehendabizi, Juntak bere txostena irakurri zuen: gertakarien\* historia bat, irakasleek zuzendariari boikot egin ziotela esanez; berriro «Batzar Nagusien ondorioak» delakoaren irakurketa, lehen izan ziren erlijio irakaskintzarekiko kezkek konponketa bat izan zutela agertuz. «Batzar Nagusien ondorioak» ez onhartzeagatik gelditu zirela kanpoan irakasleak, esaten zuen Juntak. Ondoren, irakasleek berena irakurri zuten: gertakarien historiari zeritzatena\* azaltzen zuten, hiru puntuen azterketa bat eta eskabide batzuk eginez.

Hiru puntuen azterketan, puntu horik\* soil soilik onhartzekoak zirela esaten zuten, baina ez Juntak bere jokabidearekin haiei buruz adierazten zuen interpretazioa. Beren eritziz interpretazio jator bat izanen litzatekeena azaltzen zuten, Juntaren autoritatea eta zuzendariaren eginkizuna araudi batek zehatz\* zitzala eskatzen zuten, eta irakasleek zuzendariarekin pedagogi gauezetan autonomia bat eduki zezatela, zuzendaria ikastolako metodologiaz jabeturik legokeen neurrian.

Juntak, irakasleen txostenean azaltzen zen zenbait gauza aztertzeke gogoaz azaldu zuen; eta irakasleak prest izan ziren, beren txostena berriro irakurtzeko. Zenbait puntutan eztabaida egon zen; eta, zuzendariarekiko harremanak azaldu zirenean, honek boikotaren teoria berriro ere defendatu zuen, baina irakasleen artean batek edo bestek bakarrik egin ziola esanez. Oinatik Juntako ordezkari batek eta Arrasateko guraso batek, Goiherriko junta guztien eta Bizkaiko beste junta batzuen agiriak irakurri nahi izan zituzten; baina Juntak eragotzi egin zien. Juntak, eztabaida haietan jarraitzea alferrikako zela eta, bildutako sozio eta gurasoei botazio bat proposatu zien: bai ala ez. Baiezkoak Juntari berriro autoritatea ematea esan nahi zuen, eta, beraz, Juntak inkompatibilitate bat ikusten baitzuen bere irakasle batzuen artean, hauk kanpora botatzea. Irakasleek, orduan, irakasle horik\* nortzuk ziren eta zergatik bota nahi zituzten galdetu zutenean, Juntak hori erabakitzeko zegoela erantzun zuen.

# Talde bizitzaren eraketa

Benetan zaila dugu gai honi buruz hitz egitea nahiz idaztea. Denbora nola iragan\* aztertu behar baitugu: ez egun bat, urte asko baino.

Komunitatezko bizitza aztertzeke, beharrezkoa dugu, lehendik esperientzia dutenei, bizitza hori nola eraman duten galdetzea. Gero, Israelgo «kibbutz»-en berri jakitea ere ondo etorriko litzaiguke.

Oraingo olatukook lehengo sistemaren influentzia handia dadukagu, eta, eraketa horri heltzeko, ez dugu uste hain gertu\* gaudenik. Beraz, ba liteke teoria hauk\* utpikoak izatea.

Talde bizitza eratzeko, zenbait faktore kontuan ukan\* behar dugu. Lehenik eta behin, bakoitzaren izakera.

Ideietan, lanbidean, politikan, dibertsioan ados\* etor gaitzke; baina bakoitzaren izakera pertsonala komunitate bereziarekin akort ez badago, nahiko komedia gerta daiteke haren barruan.

Hezitasun\* handia eskatzen du talde bizitzak, eta batez ere pertsona bakoitzak beregan ukan behar duen jabegoa.\*

Gauza ona litzateke, lehendik lagun edo adiskide izatea. Familia bat eratu nahi dutenek, aurretiaz ezagutzen dute elkar. Lagun bik eratzen duten familia horren antzera, sei edo zortzik ere antola dezakete talde bizitza. Noski, bikote bat ba liteke gero gaizki elkar hartzea; beraz, ez dugu zergatik harri,\* taldearen barruan hori gertatzen baldin bada.

Ez dago dudarik, taldearen barruan bizitzak eskatzen dituen zenbait gauza «komun» izan daitezkeela, eta beste batzuk, berriz, ez. Adibidez, jantokia, biblioteka, garbitegiak eta abar «komun» izan daitezke. Baina gero nork

bere bereiztasuna beharko duela uste dugu. Bakoitzaren aitzinamendua\* kontuan ukan behar dugu; batez ere, talde bizitza bikotez osaturik badago.

Nahi eta nahiezkoa dute han bizi direnek, beren ideologiari, lanari eta abarri begiraturik, hango bizimoldea eratzea.

Taldearen barruan organizazioak zehatza izan behar duela uste dugu, eta bakoitzak taldearen barruan duen egitekoa fermuki bete behar duela.

Ez da komeni, inolaz ere, betikotasun kontzientzian erortzea.\* Aldaketak beharrezkoak izanen dira, atseginareneuskarri\* izateko.

Berdintasunak oso garrantzi handia du. Desberdintasuna sortuko luketen iturriak, ahal denik azkarren herts\* bitez. Hauek, talde bizitzaren zergatikoa berehala ezerez-tuko bailukete.

Horrez gainera, herriaren aurrean iraultzaile izan behar du taldearen eraketak, bereziki taldekoek aurrerantzean erantango duten bizimoldeak.

Gure ustez, talde bizitza ezin daiteke onhar,\* baldin

lehengo sistemaren barruan nork bere interesak hobeto defendatzeko edo ekonomikoki hobeto ateratzeko antolatuta bada.

TELEIKOZULOKOEK



**TXE  
RTOA**

**TXERTOIA editoriala**

**EL CURA DE MONLEON**

3. argitaraldia — PIO BAROJA

—EUSKAL HERRIKO NOBELA—

Prezioa: 160 pezeta

**ATERA BERRIA**

**LOS VASCOS Y LA HISTORIA A  
TRAVES DE GARIBAY**

JULIO CARO BAROJA — Prezioa: 250 pezeta

—EUSKAL HERRIA ETA URRE ALDIA—

**TXERTOIA editoriala** Plaza de las Armerías, 4-S. SEBASTIAN

**Froga ezazu zuk zeuk**  
**BYASS 96**  
**ona dela izenez eta izanez**



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

# Deustuko ikastolari buruz gehiago

Deustuko ikastola eztabaidan dagoenez gero, hauzitan dauden gauzei argi apur bat egitea egoki litzateke. Xabier Gereñok, ANAITASUNAREN 245. zenbakian, zeredozer azaldu dauku; baina oraindino puntu asko geratzen dira ilunetan. Eta batez ere, hauzi hori ezker-eskuindarren artekoa denez, alderdi bakoitzak azal dezala bere ikuspuntua.

Gereñok Deustuko pasiotarrak dantzan jartzen ditu hauzi honetan. Geuk ere ba dugu zeresan eta zerikusirik hauzi honetan, ezkerri edo eskuindar ez garela.

«Hainbat instituzio eta talde dabila, ikastolak kontrolatu nahirik» —dio Gereñok. Hori egia da. Instituzio bezala gu aintzinakoak gara, eta ikastola zaletasunean ez azkenengo. Baina Elizako, eta Elizako ez diren talde asko sortu dira oraintsu, zorionez, Euskal Herrian. Esan liteke, gainera, Elizak bihotzerre egiten diela memento honetan askori, konpetentziaren lehian.

Euskal Herria ez da Elizaren eta eliztarren zeregina bakarrik: denok dadukagu zertan ihardun, elkarri orpoak jaten ibili barik. Eta orpoak jatea da, anaien jarrerak\* «eskuin eta ezkerreko» soilik juzgatzea; «klase intelektuala» alde batetik eta «eboluzionatu gabeak» bestetik ipintzea. Nor da etxeko hauzian epaia hain ximpleki eman lezakeena? Hobe da, pauso bat eman aurretik, birritan ohartzea, batez ere aldi lainotsu hauetan. Eta ez inor juzgatzea. Kristauok hori lege dugu.

Eliza, ikastolei begira dauden eliztar talde batzuk dira. Elizak Euskal Herrian dituen asmo, zeregin eta jokabideak mundu guztiak dakizki. Hargatik oraindino euskaldun askok Elizagan konfiantza dute. Zoritxarrez, beste talde batzuek ez dute beren eritzi, asmo eta jokabideen berri herriari emateko askatasun nahiko, aldi hauetan. Nola abentura, beraz, horrela nork bere buru-belarriak edozein pentsakera edo utopia iheskor litzatekeen ardatzari? Herriak eta euskerak ez dute preziorik oraingo merkaturian, edozeini apostua egiteko. Euskalduna kanpora begira da maltzurra, eta ez euskera estrukturan dauden anaiei begira.

Gereñok anaiok juzgatu gaitu, eta ez dago hori ondo: inork ez du epailari aukeratu. Ximplekeria iruditzen zait, Deustuko ikastolako gurasoak «ezkerrean eta eskuinean» ipintzea; haik\* irakurtzaile eta besteak ez nonbait direla eta, batzuk «eboluzionatuak» eta hain gabeak besteak ematea. Zer irakurri behar ote dugu, «eboluzionatuen» maila lortzeko, eta nor da diploma banatzailea? Noiztik juzgatu behar da zenbat irakurtzetik eta ez zer irakurtzetik? Ez da juzgatu behar eta gutxiago iraindu. Eta ez esan gezurrik.

«Deustuko ikastola, gurasoen nahiaren kontra, eskui-neko muturrekoek hartu dute» —dio Gereñok. Ez, jauna! da gure erantzuna. Pasiotarrok geure eskutik hartu dugu ikastolako lema,\* alderdikarien burruka antzutik jaregiteko\* eta kristau hezidura\* zehatzago begiratzeko. Guk gurasoen nagusitasuna aldeztu\* dugu hauzi honetan, haienak direnez gero umeak. Gu gurasoen zerbitzurako gaude. Hori argi!

Beste puntu bat, oso minbera, ikastolei buruz demagogikoki erabiltzea zilegi\* ez dena: maisuen arazoa. «Beren gaztetasunari eta teknika modernoari esker, euskal ikastolak kolejio guztien aitzindari\* bihurtzen dituzte», —Gereñok osterera ere. Ondo da, geure buruaren eritzi ona edukitzea; baina, jaunak, erronkak jo barik eta inozenterik zuritu gabe. Euskalduna alabantzatan urri, baina

zurikeriatan hasi? Ez dira hoik\* euskal moduak, ez eta hizkera nahastuak.

«Beren tiroak —diosku Gereñok— irakasleen kontra jaurtiki arren, ez dira ausartu... irakasleak kalera botatzera. Hemen behintzat atzera egin dute». «Nortzuk», argi dago; «zergatik» atzera egin, ez da ikusten, bai adierazten: irakasleak kalera bota nahi, «eta ez ausartzen». Jas! Ondo dago psikologian barrena nobela batez edo arakatzeari,\* baina ez dei\* gero historikoa halako irudipenei! Uste du Gereñok, guk pasiotarrok, maisuen «dedikatze, gaztetasuna eta teknika modernoak» kalera bota nahirik gabiltzala eta gurasoen eritzien kontra? Ez, jauna. Hargatik, ez ditugu bota ere; horretan ez dugu damurik izan edo «atzera egin» beharrik. Ikastolako maisuekin elkar lanean bihardugu, zenbaitzuk erlijio maisu garela. Gure koxka, edo ezulertze bakarra, Gereñok aipatzen duen «mentalitatean» ba liteke sortzea. Mentalitatea! Gizonaren dimentsio guztia: soziologia, politika, erlijio eta artea —Filosofia osoa, hizkuntza bera ahaztu gabe! Euskaldunak, euskeraz pentsatzen ez duen bitartean, ez du erdal mentalitatea baino traduzitzen. Euskal mentalitatea euskeraren estrukturatik sortzen den lorea da, eta hortiko edo hemendiko udaberri batez.

«Gazteengana bihurtu behar dugula —dio Gereñok—, haiena baita etorkizuna». Ondo dago; baina hobeto azaldu zuen hori Jaunaren profetak, «gurasoen bihotzak semeengana eta semeenak gurasoengana bihurtuko ditut» esan zuenean. Bitzuek dutelako zeregina eta zeresana: euskal mentalitatean gurasoak dira sustraiak eta gazteak kimuak. Sustraiak kimuan eta kimuak sustraietan du etorkizuna (sustraiak ez dira txertatzen,\* kimuak baino): orduan gure arbolak emango du frutu berezia, geure izakeraren, euskeraren arabera\* jokatzeko badugu. Gu euskerak hezitzen gaitu, eta guk euskera osotzen dugu. Honetan, euskera bezain errespetagarri da euskalduna. Batari edo besteari kinkieriaz erasotzen\* diona, euskal mentalitatearen kontra doa; eta Euskal Herriak juzga beza halakoa, herriak ba duelako juzgatzeko eskubiderik. Mentalitatea! Hor datza,\* bada, kaxa! Ez da bartko ametsa bera. Hitz romaniko horrek hemendik zerurainoko arloa du, esaldi batetan azaltzeko, eta bakoitzak bere lepotik burua; ez buru atzeratu edo «eboluzionatua» (ez da tontoen eta listoen arteko hauzia eta); ez zahar eta gazteen artekoa. Hauzia sakonagoa da; eta, ximplekeriaz haizatuz bakarrik, ez diogu argi handirik egingo, eta ez, denok amets dugun euskal emaitza hori aurreratuko.

PASIOTAR BATEK

## DISDE, S. L.

Etxea apaintzeko eta hornitzeko muelleak. Beheak eta ormak txukuntzeko estalkiak. Plega daiztekeen "Panelfold" atek

Alameda San Mamés, 33. Tel. 32 67 14 - 32 95 84

BILBO - 10

# Noizko euskal eliz probintzia bat?

Iruineko artzobispadua sortu zenean, askok uste genuen, eliz probintzia horretan sartuko zituztela Tudela, Gasteiz, Donostia eta Bilboko diosesiak bederen,\* Baionakoa sartzea, gaurko Estatu mugakatik, zailtxo ikusten bazen ere. Bai zera! Gasteiz eta Bilboko ordez, Jakakoa eta Kalahorrakoa sartu zituzten. Egia esan, ez dugu txartzat jotzen azken biok sartzea, batez ere Kalahorrakoa, diosesi honek aspaldiko euskal historia ba du eta. Baina ezin dugu ondo ikusi Araba eta Bizkaia kanpoan uztea, lehen bezala Burgosko eliz probintzian sarturik.

Lehen ere aipatu genuen hemen bertan Espainiako eliz herrialdeen mugaketaren aldresbeskeria. Orain geure Herrikoarena aipatzera gőaz.

Aurtengo udan Katalunian geundela, hain zuzen ere La Seu d'Urgell hirian, bertan biltzen ziren katalan apezpikuak, "Tarraconense" eliz probintzia osatzen duten diosesietako buruzagiak (eliz probintzia honetan ere, kanpoan gelditzen da Perpinyà-ko diosesia, Baionakoaren arrazoi berberakatik). Eta orduan pentsatu genuen, gure Herrian gertatzen zena aipatzekoa zela, eta idaztekotan ginen. Bertan behera utzi genuen asmoa. Baina Bilboko Apezpikutegiko azken Boletín Ofizialak, 260. zenbakian, berri bat ematen dauku: Añoveros jauna Burgosera joan zela, eliz probintziako apezpikuen bilkurara\*. Eta berri honek bultzatu gaitu azkenik, Araba eta Bizkaiaren egoera aipatzera.

Derioko apaizek, beren agerpenean, Euskal Konferentzia bat eskatzen zuten; baina, egia esan, gauzei errealismo

## 9. etik

Ezezkoak Junta ukatzea esan nahi zuen; eta erantzun hori garaile ateratzen bazen, Juntakoek beren kargua utzi eginen zutela: Honen ondorioak ere garbi utzi zituzten: oraingo Juntakoek, udaletxeak gelak ematea eta kooperatiben eta «Caja Laboral»-en diru laguntzak lortuak zituzten; haien ordez jarriko zirenek, berek ikusi beharko zuten, gauza horik nola lor.\*

Botazioak erantzn hauk izan zituen: 264 baiezko, 112 ezezko. Irakasleek erresutatua onhartu egin zuten, eta denak kanpoan gelditu ziren, hilabetearen 23ko batzarraren erabaki bezala.

## 1972.eko hazilaren\* 29an.

Irakasleek «Magistratura de Trabajo»-rengana jo ondoren, hauzi bat izan behar zen, legearen kontra jaurtikiak izan zirela agertu baitzioten hauzitegi honi. Irakasleen abokatuak Miguel Castells eta M. Bandrés izanen dira.

JUAN AXPE

ZUZENDARITZAREN OHARRA: Arrasatetik heldu zai-kun idazlan hau argitaratzen dugu; baina honek ez du esan nahi, Axpe jaunak dioenarekin ANAITASUNA bat egiten denik edo ez denik.

Beste inork arazo honi buruz aportaziorik bidali nahi badu, era berean argitaratuko dugu.

zaiku, jaku, zaigu  
zedukan, eukan, zeukan  
zedukaten, euken, zeukaten  
zeuden, egozen  
zezala, eiala  
zezan, eian  
zezatela, elela  
zièn, eutsen

zieten, eutseen  
ziezetela, eioeela, zezaietela  
zion, eutson  
zioten, eutsoen  
zitzaien, jaken  
zitzaion, jakon  
zitzaizkion, jakozen  
zitzaia, elzala

pixka batez begiraturaz gero, ez zen hori erraz lortzekoa. Oso-tasun horretan ez bada ere, katalanek, galegoek eta andaluzek ba dituzte beren eliz probintzien konferentziak; guk, ostera, lege nortasun txikienik ere ez dugu, liturgi lanetarako dugu zerbait salbu.

Arazo honetaz, Vatikanoko II. Kontzilioak, "Christus Dominus" dekretuan, hauxe dio: "Arimen onak eskatzen du, ez bakarrik diosesien mugatze egoki bat, bai eta eliz probintziena ere. Gehiago oraindik: eliz herrialdeen sortzea aholkatzen\* du, pastorgintzaren beharrianak hobeto betetzeko, tokien eta giza egoeraren arabera,\* eta bide batez apezpikuen harremanak errazagoak eta onurakorragoak\* izan daitezen, elkarrekin, metropolitanoekin, nazio bereko beste apezpikuekin eta agintari zibilekin" (art. 39). "Helburu hauk\* lortzeko, Kontzilio Sainduak hauxe erabakitzen du: Berriz ere azterka bitez eliz probintzien barrutiak, eta xeda\* bitez metropolitanoen eskubide eta probilejioak norma berri eta argiekin" (art. 40).

Dekretu honen arabera, euskaldun eta kristau soilok uste dugu, goiko esferak zerbaitetan ariko direla; eta, ahal balitz, ondo etorriko litzaiguke guztioi, horri buruz egiten denaren argitasuntxoren bat.

D. AMAITERMIN

## HARPIDEDUDUNEI OHARRA

Moldiztegiko prezio jasoei erantzun ahal izateko, ANAITASUNAK, bere urteroko saria 200 pezetara altxatu beharra eduki du datorren urte honetarako.

Beraz, 1973. ean ANAITASUNA ren harpidea 200 pezetakoa izanen da. Irakurleak uler dezakeenez, hau gogoz kontrakoa bazaiku ere, ezinbestekoa izan da aldizkariari eusteko.

Eskerrik asko.

## Idaztegi - Irarkola Euskarazko - Liburuak

# VERDES

Correo, 7 - Tfo. 21 29 03  
BILBAO-5



EUSKALDUN RH-DUNEN UMORE ORRIA



Hitzik gabe



Azken hostoa




## KONFIRMATU GABEKO ZURRUMURRUAK

Gehienetan ongi informaturik egoten diren iturrietatik, azken orduan, ondorengo berriok heldu dira gure idazkaritzara:

- Katangako errepublika zorionsuan izugarritzko nahasteak egon omen\* dira, eskoletako maisu-maistrek sorturik, bertako gobernuak, koloniar kultura baztertu eta haren ordezkari Herriko hizkuntza eta ohiturak ofizialki indartu gurarik, ordurarte nazioko eskoletan irakasten ari zirenei, examina batzuen bidez, Katangako hizkuntza, literatura, historia, geographia, folklorea eta abar ongi dakitela frogatzeko, titulu bat eskatu nahi dielako. Dirudenez, irakasleak protestaka aritu\* dira, kultur frogarik ez dela behar aipatuz.

- Egunotan jakin dugunez, Unamuno jauna ez omen zen hil Salamancan, 1936.eko abenduaren 31n, ez. Lagun batzuek, hain zuzen ere, orain dela gutti, abenduaren 28an, Bilboko Bidebarrieta kalean ikusi omen dute txiki-toak edaten Pio Baroja jaunarekin batera. Autographo bila ere zenbait lagun ere joan omen zitzaizkien. Nork esan, oraino bizirik!



—Zer nahi dun? Ba diakinat, erregina maite behar dugula; baina ni, bihotzean, errepublikarra sentitzen naun.

Gurutzegrama (11)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

*Ezker aldetik eskuin aldera:* 1. Zapaltzeko egintza.—2. Lanaren truke jasotzen den dirua. Bokala.—3. Hamar bider ehun. «Dut» aditz formaren erlatiboa.—4. Bizkaiko herria (alderantziz). Izenorde pertsonala.—5. Zatia. Erdietsi (infinitiboan).—6. Nota musikala (alderantziz). Kontsonantea. Zintzoa (artikuluarekin). Bokala.—7. Kontsonantea. Bokala. Kontsonantea. Etxera sartzeko zuloa (alderantziz).—8. Ordaindu behar dena. Itsasorako ibilgailua.—9. Nota musikala (alderantziz). Maitatzailea, zerbaiti edo norbaiti emana (alderantziz). Emea ez dena (alderantziz).—10. Zenbakia. Buruan dugu. Omen.

*Goitik behera:* 1. Karga. Geriza.—2. Egur zatia, eskuan eraman ohi dena (alderantziz). Aintzinako burdin lantegia.—3. Ederra. Emea ez dena. Bokala.—4. Banan banan (alderantziz). Bokala.—5. Nota musikala. Kontsonanteak. Argirik gabea (alderantziz).—6. Laguna. Bokala. Bizia aurrera eramateko eta dirua irabazteko egiten duguna (alderantziz).—7. Izenorde posesiboa (alderantziz). Erleek eta sugeek dute (alderantziz).—8. «Ukan» aditzaren forma (alderantziz). Leuna ez dena.—9. Bokala. Zintzoa (artikuluarekin eta alderantziz). Gaixoa (artikuluarekin eta alderantziz).—10. Ogia egitekoa (artikuluarekin eta alderantziz). Kasik (alderantziz).

*Goitik behera:* 1. Zama. Itzal.—2. Makila. Ola.—3. Po. Irina. Ia. Lan.—7. Gure. Ezten.—8. Dut. Latz.—9. A. Ona. Eria.—10. lit. Ar. U.—4. Banaka. E.—5. La. RL. Ilun.—6. Kide. O. ta.—2. Alokairu. A.—3. Milla. Dudan.—4. Gernika. Ni.—5. Atal. Lor.—6. Mi. B. Ona. I.—7. T. A. N. Ate.—8. Zor. Untzi.—9. La. Zale. Ar.—10. Lau. Ile. Ei.



HIEROGLYPHIKOA

Genitibo



UGARI



NOLAKOA DA?

AURKITU EZETZI!


ORAMTXENBG  
BAMOUSKRAI  
LIARRESRIP  
IRUINEAKOU  
BILBIZIONZ  
UKEZietsag  
BIZKARTAZA  
ATEGORRITE  
HAITSONODK  
GIPUZAINAI

Goiko koadro horretan Euskal Herriko zazpi hiri nagusiren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara ere, diagonalean, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.

Lehen honetan, aurrerantzean nola joka jakin dezazun, zazpi izenekin batera, haien tokia ere adierazten dugu.

ERANTZUNA:

Donostia, Baiona, Bilbo, Gasteiz, Maule, Irunea, Garazi.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Kolore askotakoa

**H I Z T E G I A**

IMANOL BERRIATUAK

**Ale honetan izartxo batekin agerzten diren berbak**

ABELGORRI, **ganado vacuno**.  
 ABELZAINZA, **cría de ganado**, élevage.  
 ABURU, eritzi.  
 ADOS, **conforme**.  
 AGIAN, beharbada, nonbait ere.  
 AHOLKATZE, kontseilatze, **aconsejar**.  
 AINA, adina, beste, bezainbat.  
 AISE, erraz.  
 AITZINAMENDU, **desarrollo**, développement.  
 AITZINDARI, **pionero**.  
 AITZITIK, **al contrario**.  
 ALBISTE, berri, **noticia**.  
 ALDEZTU, defendatua.  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALE, bihi, garau.  
 ALEGIA, **a saber, es decir, esto es**.  
 ALOR, arlo.  
 AMANDA, **multa, sanción**.  
 ANITZ, asko.  
 ANTSIA, **solicitud, inquietud, afán**.  
 ARABERA, arauera, **según, conforme**.  
 ARAKATZE, aztertze, ikertze.  
 ARE, oraindik.  
 ARERIO, etsai, **enemigo, contrario**.  
 ARESTIAN, oraindik orain, berriki.  
 ARETO, **sala, salón**.  
 ARITU, ari izan, ihardun.  
 ARRAKASTA, **éxito, succès**.  
 ARRASATE, Mondragoe.  
 ARRUNT, **corriente, común, ordinario**.  
 ASKI, nahiko.  
 AUSART, **valiente, atrevido, osado**.  
 AZKONAR, **tejón, blaireau**.

BA, bada, **pues**.  
 BAILARA, **comarca, distrito**.  
 BAIK BAT, batez ere, bereziki.  
 BATZUK, zenbait. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).  
 BE, bere, ere.  
 BEDEREN, gutienez, behintzat.  
 BEKAIZKERIA, **envidia**.  
 BERAGAZ, berarekin.  
 BILAKA, bihur, **convertirse**.  
 BILAKATZE, bihurtze.  
 BILKURA, bilera, batzar.  
 BURUTU, **realizado, terminado**.  
 BURUTZE, **realizar**.

DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DATZA, **yace**. (Etzan **aditzaren forma**).  
 DEI, llamar. (DEITU, **llamado**).  
 DEITURA, **apellido**, nom de famille.  
 DEUS, ezer.  
 DEUSEZTE, deuseztatze, ezerezte, **destruir**.  
 DEZANTZAT, daiantzat, dezan, daian.  
 EI, omen.  
 ENGAIAMENDU, **compromiso, engagement**.  
 ERA, **ocasión, oportunidad**.  
 ERABAT, guztiz, zeharo.  
 ERAKUNDE, **organismo, institución**.  
 ERASO, **atacar**.

ERASOTZE, **atacar**.  
 ERDIESPEN, **logro**.  
 EREDU, **modelo**.  
 EROAN, eraman.  
 ERORTZE, jauste.  
 ERRUDUN, hobendun.  
 ESERTZE, jezartze.  
 EUSKARRI, **apoyo, sostén**.  
 EZABATU, **borrado, borrado**, effacé.  
 EZKUR, **bellota, gland**.  
 EZKUTA, **ocultar, cacher**. (EZKUTATU, **ocultado, caché**).

FROGATZE, **probar, demostrar**.  
 FUNTS, **fondo, sustancia**.

GABE, **en lugar de**, au lieu de.  
 GAITZETSI, **desaprobado, condenado**.  
 GAINGIROKI, **superficialmente**.  
 GARAU, bihi, **grano, grain**.  
 GARBI, **limpiar, desbrozar**. (GARBITU, **limpiado, desbrozado**).  
 GERTAKARI, gertatua den zerbait. (GERTAKIZUN, gertatzeko den zerbait).  
 GERTU, prest, prestik.  
 GISA, modu.  
 GOGARA, gogoaren arauera.  
 GOGO, nahi, gura.  
 GOMENDIO, **recomendación**.  
 GORABEHARA, **a pesar, malgré**.  
 GURA, nahi, gogo.

HABE, **columna, pilar**.  
 HAIK, hareek. (**Haiek** aktibo, **haik** pasibo).  
 HALABER, **igualmente, así mismo**.  
 HAR, **tomar, coger**. (HARTU, **tomado, cogido**).  
 HARRI, **admirarse**. (HARRITU, **admirado**).  
 HARTZ, **oso, ours**.  
 HARTZEKE, hartu gabe.  
 HASTAPEN, haste, hasiera.  
 HATZ, erhi, **dedo, doigt**.  
 HAU, honeek. (**Hauek** aktibo, **hauek** pasibo).  
 HAUTAPEN, **opción, elección**.  
 HAUTARKI, **voto**.  
 HAZIL, **noviembre**.  
 HEDATZE, zabaltze.  
 HEIN, **grado, medida**.  
 HEL, **llegar, arriver**. (HELDU, **llegado, arrivé**).  
 HELMEN, **alcance, portée**.  
 HERTS, **cerrar, fermer**. (HERTSI, **cerrado, fermé**).  
 HETAN, haietan.  
 HEZIDURA, **educación**.  
 HEZITASUN, **educación**.  
 HOIK, horik, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).  
 HORIK, hoik, horrek. (**Horiek** aktibo, **horik** pasibo).  
 HOTS, **a saber, es decir, esto es**.  
 HURA, ha.

IDURI, aburu, eritzi.  
 IGEL, **rana, grenouille**.

IHZI, ehiza, **caza, chasse**.  
 IRAGAN, igaro, pasatu; iraganiko, iragandako.  
 IRAIL, **septiembre**.  
 IRITXI, heldu.  
 ISUR, **verter, verser**.  
 ISURI, **vertido, versé**.  
 ITAUNKETA, **interrogatorio**.  
 ITZARTZE, esnatze. (IRATZARTZE, esnarazte).

JABEGO, **dominio**.  
 JADANIK, **ya**.  
 JAREGITEKO, libratzeko.  
 JARRAITU, jarraiki. (Aditz hau intrantsitibo bezala agertzen da klasikoetan. Adibidez: **narraio, garraizki, eta abar**).  
 JARRERA, **postura, actitud**.  
 JASO, altxatu, goratu.

KAKARRALDO, **escarabajo, scarabée**.  
 LAKET, atsegin. (Latinezko **placet** hitzetik dator).

LAPIKO, eltze.  
 LAR, larregi, gehlegi, sobera.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEMA, **timón**.  
 LOR, erdiets, **conseguir, lograr**. (LORTU, erdietsi, **conseguido, logrado**).  
 LOT, **dedicarse, ocuparse**. (LOTU, **dedicado, ocupado**).  
 LOTAZIL, abendu.

MAIZ, sarri.  
 MATXINSALTO, **saltamontes, sauterelle**.  
 MENDE, **siglo**.  
 MOZKIN, **producto, beneficio**.  
 MUKURRU, **tope, colmo**.

NABARI, **evidente, patente, notorio**.

OIHAN, baso.  
 OMEN, ei.  
 ONHAR, **aceptar, aprobar**. (ONHARTU, **aceptado, aprobado**).  
 ONURAKOR, probetxugarri.  
 ORDIZIA, **Villafranca de Oria**.  
 OREIN, **ciervo, cerf**.  
 ORKATZ, **gamo, chamois**.  
 ORO, guzti.  
 OSTEGUN, eguen.  
 OTSAIL, **febrero**.

SAR, **meter**. (SARTU, **metido**).  
 SOBERA, larregi, gehlegi.  
 SOBERAKIN, **reserva**.

TXERTATZE, eztitze, **injertar, greffer**.  
 TXIRO, **pobre**.  
 TXOSTEN, idazlan labor.

UDALETXE, Herriko Etxe.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, **izan** pasibo).  
 U MOTU, **madurado**.  
 URDAZUBI, Nafarroako **Urdax**.  
 URR, **desmontar, abrir, défricher**. (URRATU, **desmontado, abierto, défriché**).  
 URTARRIL, **enero, janvier**.

UZTA, **mies, moisson**.

XEDA, **determinar, fijar, definir**. (XEDATU, **determinado, fijado, definido**).

ZATI, **temporada**.  
 ZEHATZ, **detallar**. (ZEHAZTU, **detallado**).  
 ZELAN, nola.  
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.  
 ZERITZATEN, erizten zioten.  
 ZETZAN, **yacia, consistia**. (Etzan **aditzaren forma**).  
 ZIEZAKEON, ziezokeen, zezaiokeen, eiskion.  
 Ezin permiti ziezakeon = **no podía permitirle**.  
 ZILEGI, **licito**.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZIZTOR, **longaniza, saucisse**.

**GALERIA DEL LIBRO**

José Anjel Zaballa

Liburudenda  
 erregalutarako gauzak  
 Euskal liburuak  
 Papeteria



Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - BILBO - 11



## Neolitiko garaiko iraultza

Janari soberakin\* iraunkor bat lortzean, gizona lurra-  
ren gainean dagoenez geroztik ezagutu den iraultzarik  
garrantzitsuenaren oinarri materiala finkatzen da: labo-  
rantzaren eta abelzaintzaren\* hasiera. Iraultza honek sor-  
kundeko garaia izena hartu zuen: neolitiko garaiko  
iraultza.

Laborantzak eta abelzaintzak janari soberakin bat behar  
dute alde aurretik: garauak\* eta abereak, zuzenean ja-  
teko ez den zerbaitetarako erabiltzen baitira. Uzta\* bildu  
baino lehen, landatu egin behar da, hazia erein. Baina  
milaka urtez gosearen menpean bizi izan diren gizonek  
ez dute aise\* ulertzen, jan daitekeen zerbait lur azpian  
ezkuta\* dadin, janaria soberan ez badute batez ere.  
Gainera, laborantzak eta abelzaintzak janari erreserba  
bat behar dute, landatzetik uztara doan eperako; eta  
arrazoi honengatik ez ziren basoko frutuen biltzea, ihizia  
eta arrantza baztertu.

Neolitiko garaiko iraultzari esker, lehen aldiz, janaria  
gizonaren kontrolaren pean dago. Frutuen biltzea, ihizia  
eta arrantza bide pasiboak direlarik, naturaren aberasta-  
sunak gutitzen edo behintzat maila berberean uzten dira.  
Laborantza eta abelzaintza, aitzitik,\* bide aktiboak dire-  
nez, aberastasun berriak sortzen dira, ia gizonak nahi  
duen aldian eta gogo\* duen lekuan. Lan kontsumo ber-  
beraz hamar aldiz gehiago lor\* daiteke: gari ale\* batek  
hamar ale ematen ditu, behi batek hiru txekor.

Gozonak janarien gain lortutako kontrolaz bestalde,  
neolitikoko iraultzak, superproduktio iraunkor bat finka-  
tuz, artizanogo profesional baten jaiotza errazten du eta  
halaber\* garai berean gertatzen den lanaren lehen par-  
tiketa sozial sakona: nekazari eta artzain herriak.

Nekazaritzaren ordorioz gertatu zen aurrerapen nagusi-  
aren eragilerik garrantzitsuenak emakumeak dira, du-  
darik gabe. Oraindik nekazaritzaren lehen mailan dauden  
herri atzeratuek, mitoeak eta ipuin zaharrek oso argi fro-  
gatzen\* dute emakumearen eginkizun hori. Emakumeak  
ziren frutubiltzaileak, eta emakumeek landatu zituzten,  
lehen aldiz, haziak. Winnebago tribuko emakumeak hazi-  
tarako arroza eta artoa ezkutatzera behartuak zeuden,

gizonezkoek jan ez zitzaten; eta fenomeno hori arrunta\*  
izan zen, dudarik gabe, gizonezkoek «inbentu» hartan si-  
nestu zuten arte.

Baina abelzaintza eta nekazaritza progresuaren bidean  
pauso luze bat izan baziren ere, soberakina ez zen, ar-  
tisanoa bere janaria produzitzetik erabat\* libratzeko as-  
ki.\* Kide guztien lana behar du taldeak. Taldeak ez du  
oraindik, gizarte osoa arriskuan jarri gabe, jabego\* pri-  
batua bilaka\* daitekeen superproduktiorik lortzen. Tal-  
dearen usadioak, erdi mailatik goragoko pilatze oro gale-  
razten du. Norberaren ahalmen produktiboak ez du zeri-  
kusterik banaketan. Egoera honetan, eta pilatze hori deu-  
sezteko,\* zeremonia berriak sortzen dira; eta, zeremo-  
nia horietan, asko dutenek gutiago dutenei erregaluak  
egiten dizkiete. Cape Flattery USAko indioen artean,  
janari ugari bildu duena festa bat egitera behartua dago;  
eta festa horrek, janariak bukatu arte iraunen du. Inmo-  
ral da, indio haientzat, kompetentzia ekonomiko oro\* eta  
aberastasun indibidual oro.

Aitzinamendu\* maila honetan, lana kooperatiboki  
eratzen da: zenbait eginkizun taldeka egiten da (xabolak  
egin, animalia haundiak hil, bidexkak garbi,\* zelai berriak  
urra\*); eta eguneroko lanetan ere familiak taldeka ari  
dira. Lan mota honen formarik jatorrenean, gizon eta  
emakume guztiek hartzen dute parte: ez dago, beraz, kla-  
se dominatzailearik.

### ARANTXA URRETAVIZCAYA

daude, dagoz  
dizkiete, deutseez  
zeuden, egozen  
zitzaten, eiezan





## MENCHACA

E: talkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas-tresnak, Igeritekoak,  
Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-1



Colchineria Vasca

LARRAURI Y GARAY

TAPICERIA - .LFOMBRAS - DECORACION

C. DE LARREATEGUI, 8 - TELEFONOS 21 60 38 - 23 59 21 - 24 59 28

BILBAO-1